



GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO
DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILA
Araubide Juridikoaren
Sailburuordetza
Lege Garapen eta Arau Kontrolerako
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y
AUTOGOBIERNO
Viceconsejería de Régimen Jurídico
Dirección de Desarrollo Legislativo y
Control Normativo

LEGEZKOTASUN-TXOSTENA,
ARABAKO FORU-OGASUNAREN,
ESTATISTIKAKO INSTITUTU
NAZIONALAREN (INE) ETA EUSKAL
ESTATISTIKA ERAKUNDEAREN
(EUSTAT) ARTEKO HITZARMENARI
BURUZKOA, INFORMAZIO-TRUKEEN
ARLOAN.

11/2025 LT - LGAKZ
NBNC_CCO_8367/24_46

I.- AURREKARIAK

Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística (EUSTAT) erakunde autonomoak Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza honen nahitaezko legezketasun-txostena eskatu du goiburuan aipatutako hitzarmenari dagokionez.

Eskaerarekin eta hitzarmenaren testuarekin batera, organo eskatzaileak EUSTATEko zuzendari nagusiak sinatutako azalpen-memoria eta EUSTATEko Kudeaketa Juridiko eta Administrazioaren Arloko Aholkularitza Juridikoaren txosten juridikoa aurkeztu ditu.

Txosten hau ematen da Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) 9.1.i) artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 15.1.c) artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

INFORME DE LEGALIDAD RELATIVO
AL CONVENIO ENTRE LA HACIENDA
FORAL DE ARABA/ÁLAVA, EL
INSTITUTO NACIONAL DE
ESTADÍSTICA (INE) Y EL EUSKAL
ESTADÍSTIKA ERAKUNDEA/INSTITUTO
VASCO DE ESTADÍSTICA (EUSTAT) EN
MATERIA DE INTERCAMBIOS DE
INFORMACIÓN

11/2025 IL - DDLCN
NBNC_CCO_8367/24_46

I.- ANTECEDENTES

El Organismo Autónomo Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística (EUSTAT) solicita el preceptivo informe de legalidad de esta Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo, en relación con el convenio citado en el encabezamiento.

Juntamente con la solicitud y el texto del convenio, el órgano solicitante aporta memoria explicativa suscrita por el Director General de EUSTAT e informe jurídico de la Asesoría Jurídica del Área de Gestión Jurídico-Administrativa del EUSTAT.

El presente informe se emite en virtud de lo dispuesto en el artículo 9.1.i) del Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos; y en relación con lo prevenido en el artículo 15.1.c) del Decreto 8/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno.



Era berean, adierazi behar da, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzekeo ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.b) artikulua. Aholkularitza juridikoaren funtzioaren barruan sartzen da Eusko Jaurlaritzak sinatzen dituen akordio- edo hitzarmen-proiektuei buruzko nahitaezko txosten juridikoa egitea, erregelamendu bidez zehazten diren kasuetan; erregelamendu bidezko garapena Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren bidez egin da, eta 13.1.b) artikuluan arautzen da txosten honen nahitaezkotasuna.

II. LEGEZKOTASUN-KONTROLA

1.- Analisi formala

EUSTAT erakunde autonomoak ekarpenak egin ditu bere ekimenarekin batera (aurrekarien atalean jasotzen da hitzarmen hau izapidetzeko behar den dokumentazioa, hitzarmen horren beharra eta legezkotasuna justifikatzeko, bai eta haren ondorio ekonomikorik eza justifikatzeko ere (EUSTATeko zuzendari nagusiaren txostenean azaltzen da hitzarmena gauzatzean ez dela alderdien arteko kontraprestazio ekonomikorik egongo, eta zehazten da hitzarmenak EUSTATentzat ezartzen dituen betebeharrei dagokienez, langile propioen bitartez egingo direla, eta, beraz, gastua erakunde autonomoaren aurrekontuaren I. kapituluaren barruan hartuko dela).

Bestalde, hitzarmenaren izapidetzea bat dator Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen zehaztapenekin, bai eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Arautzekeo apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren XIII. tituluan ezarritakoarekin ere, EUSTATen Kudeaketa Juridiko-Administratiboaren Arloko Aholkularitza Juridikoak emandako txostenean justifikatzen den bezala; beraz, ez da legezkotasun-akatsik ikusten ikuspegi formal horretatik.

De la misma forma, cabe señalar que, de conformidad con la regulación que ofrece el artículo 5.1.b) de la Ley 7/2016, de 2 de junio, de Ordenación del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco, forma parte de la función de asesoramiento jurídico la emisión de un informe jurídico preceptivo respecto de los proyectos de acuerdos o convenios que se suscriban por el Gobierno Vasco en los supuestos que se determinen reglamentariamente; desarrollo reglamentario ya abordado por Decreto 144/2017, de 25 de abril, del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco y que regula en su artículo 13.1.b) la preceptividad del presente informe.

II. CONTROL DE LEGALIDAD

1.- Análisis formal

El Organismo Autónomo EUSTAT ha aportado junto con su iniciativa (como ya se recoge en el apartado de antecedentes) la documentación requerida para la tramitación del presente convenio, en aras a justificar la necesidad y legalidad de dicho convenio, así como la ausencia de repercusión económica del mismo (en el informe de la Directora General del EUSTAT se explica que en la ejecución del convenio no van a existir contraprestaciones económicas entre las partes, concretando que, en lo que respecta a las obligaciones que el convenio establece para EUSTAT, se realizarán mediante personal propio, con lo que el gasto se asumirá dentro del Capítulo I del presupuesto del Organismo Autónomo).

Por otra parte, la tramitación del convenio se ajusta a las determinaciones de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, así como a lo establecido en el Título XIII del Decreto 144/2017, de 25 de abril, de Regulación del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco, tal y como se justifica en el informe emitido por la Asesoría Jurídica del Área de Gestión Jurídico-Administrativa de EUSTAT, por lo que no se aprecia tacha de legalidad alguna desde esta perspectiva formal.

2.- Analisi materiala Ikuspegi materialetik, hitzarmen-proiektuan planteatutako helburuak kontuan hartuta, agerikoa da esku hartzen duten administrazioek hitzarmena sinatzeko duten legezko gaitasuna, bai eta interes publikoko xede komun bat dagoela ere, alderdiak lotzen dituen lankidetzan aritzeko beren formari eta berariazkoari dagokionez. 2.1 Xedea Hitzarmenaren xedea (lehen klausula) lankidetzaz-esparru egonkor bat arautzea da, Arabako Foru Ogasunak INEri eta EUSTATI zerga-informazioa emateko jarraitu behar diren eduki, baldintza eta prozedurei dagokienez. Informazio hori beharrezkoa da Euskal Estatistika Planaren estatistika-eragiketak eta Europako Estatistika Programaren eragiketen oinarri diren Estatistika Plan Nazionalaren estatistika-eragiketak garatu, egin eta zabaltzeko, INEren ardurapean baitago. Halaber, INEk eta EUSTATEk Arabako Foru Ogasunari bere eskumenak garatzeko behar dituen estatistika-ustiapienak ematea arautu behar dutenak. Are gehiago, adierazi behar da ezen, zerga-informazioa eskatzeko orduan, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen arteko koordinazioa lehendik ere araututa dagoela, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren eta haren sozietate publikoen eta Arabako Foru Aldundiaren arteko 2016ko otsailaren 9ko aldebiko hitzarmenaren bidez (2016ko apirilaren 5eko EHAA, 63. zk.). Hitzarmen hori erabat aplikagarria da Arabako Foru Ogasunaren eta EUSTATen artean, EUSTATen Kudeaketa Juridiko-Administratiboaren Arloko Aholkularitza Juridikoak egindako txostenean ezarritakoaren arabera.	2.- Análisis material Desde la perspectiva material, teniendo en cuenta los objetivos planteados en el proyecto de convenio, resulta evidente la capacidad legal de las Administraciones intervinientes para suscribir el mismo, así como la existencia de un fin común de interés público que vincula a las partes en su formal y expreso deseo de colaboración. 2.1 Objeto El convenio tiene por objeto (cláusula primera) regular un marco estable de colaboración en relación con el contenido, las condiciones y los procedimientos por los que se debe regir el suministro de información fiscal desde la Hacienda Foral de Álava al INE y a EUSTAT, necesario para el desarrollo, elaboración y difusión de las operaciones estadísticas del Plan Vasco de Estadística y de las operaciones estadísticas del Plan Estadístico Nacional que sustentan las operaciones del Programa Estadístico Europeo, cuya responsabilidad recae en el INE. Asimismo, los que deben regir el suministro por parte del INE y del EUSTAT a la Hacienda Foral de Álava de las explotaciones estadísticas que esta última precise para el desarrollo de sus competencias. Hay que indicar, a mayor abundamiento, que la coordinación entre organismos de la Comunidad Autónoma de Euskadi a la hora de solicitar información tributaria, ya viene regulándose con anterioridad mediante el convenio bilateral entre la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus sociedades públicas con la Diputación Foral de Álava, de 9 de febrero de 2016 (BOPV nº 63, de 5 de abril de 2016), para el intercambio de información, convenio que se considera de plena aplicación entre la Hacienda Foral de Álava y EUSTAT, a tenor de lo establecido en el informe emitido por la Asesoría Jurídica del Área de Gestión
---	--

Badago horren aurreko aurrekari bat: Arabako Foru Ogasunaren, Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Eustat-Euskal Estatistika Erakundearen artean 2020an sinatutako hitzarmena. Hitzarmen horren indarraldia 2024an amaitu zen, ez baitzen luzatu, amaitu aurretik hitzarmena luzatzea aurreikusita bazegoen ere.

2.2 Eskumen materiala

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kasuan, Autonomia Estatutuaren 10.37 artikulua eskumen eskusiboa ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoari "Euskal Herriko estatistika bere helburu eta eskumenetarako" arloan. Eskumen eskusibo hori Euskal Estatistika Planen Legeen eta horiek garatzeko Dekretuen bidez gauzatzen da, urteko aldirako.

Azkenik, EUSTATEko zuzendari nagusiak hitzarmena sinatzeko duen eskumena Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean (31. artikulua) eta Euskal Estatistika Erakundearen egitura organikoa ezartzen duen urtarrilaren 25eko 12/2000 Dekretuan (4.1.h artikulua) oinarritzen da.

2.3 Izaera juridikoa

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2.a) artikuluan aipatzen diren hitzarmenen motakoa da; hau da, bi administrazio publikoren edo gehiagoren artean sinatutako administrazioen arteko hitzarmena da, edo administrazio publiko desberdinei lotutako edo haien mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate biren edo gehiagoren artean sinatutakoa. Lehen aipatutako urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Arautzeko apirilaren 25eko

Jurídico-Administrativa de EUSTAT.

Ya existe un precedente anterior a este, que es el convenio entre la Hacienda Foral de Álava, el Instituto Nacional de Estadística y Eustat-Instituto Vasco de Estadística en materia de intercambio de información firmado en 2020, cuya vigencia finalizó en 2024 dado que el mismo no fue prorrogado pese a que estaba prevista la prórroga del mismo antes de su finalización.

2.2 Competencia material

En el caso de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, el artículo 10.37 del Estatuto de Autonomía atribuye a la Comunidad Autónoma la competencia exclusiva en materia de "Estadística del País Vasco para sus propios fines y competencias".

Esta competencia exclusiva se ejerce mediante las Leyes de los distintos Planes Vascos de Estadística y sus Decretos de desarrollo para el periodo anual.

Finalmente, la competencia de la Directora General del EUSTAT para la suscripción del convenio tiene fundamento en la Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi (artículo 31) y en el Decreto 12/2000, de 25 de enero, por el que se establece la estructura orgánica del Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística (artículo 4.1.h).

2.3 Naturaleza jurídica

El presente convenio tiene naturaleza administrativa y es del tipo de convenios a los que se refiere el artículo 47.2.a) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, es decir, es un convenio interadministrativo firmado entre dos o más Administraciones Públicas, o bien entre dos o más organismos públicos o entidades de derecho público vinculados o dependientes de distintas Administraciones Públicas.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 47.1 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, antes mencionada, y como también indica el artículo 54 del Decreto

144/2017 Dekretuaren 54. artikulua ere adierazten duen bezala, hitzarmenak dira administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin xede komun baterako hartutako ondorio juridikodun akordioak.	144/2017, de 25 de abril, de Regulación del Servicio Jurídico del Gobierno vasco, los convenios son aquellos acuerdos con efectos jurídicos adoptados por las Administraciones Públicas, los organismos públicos y entidades de derecho público vinculados o dependientes o las Universidades públicas entre sí o con sujetos de derecho privado para un fin común.
2.4 Klausulen azterketa	2.4 Análisis del clausulado
Hitzarmenaren edukia 2020an sinatutako aurrekoaren oso antzekoa da; hala ere, hobekuntza batzuk jasotzen ditu, bere jarduna hobetzeko, bai eta alderdi sinatzaileentzako emaitzak ere.	El convenio tiene un contenido muy similar al precedente firmado en 2020, no obstante, incorpora ciertas mejoras en aras a perfeccionar su operativa, así como sus resultados para las partes firmantes.
Hori horrela, testu honek azalpen-zatia eta hamabi klausula ditu, eta, oro har, bat datoz administrazioen arteko akordio mota horiei aplikatu beharreko arau-aurreikuspenekin.	Siendo eso así, este texto consta de parte expositiva y doce cláusulas, que se ajustan, con carácter general, a las previsiones normativas de aplicación a este tipo de acuerdos interadministrativos.
Lehenengo klausulak hitzarmenaren xedea finkatzen du, zehazki: lankidetzaz-esparru egonkor bat arautzea, AFOk INEri eta EUSTATi ematen dien zerga-informazioaren edukiari, baldintzei eta prozedurei dagokienez.	La cláusula primera fija el objeto del convenio, en concreto: regular un marco estable de colaboración en relación con el contenido, las condiciones y los procedimientos por los que se debe regir el suministro de información fiscal desde la HFA al INE y al EUSTAT.
Bigarren klausula zerga-datuaren izaera erreserbatuari eta sekretu estatistikoari buruzkoa da. 2020an aurreikusitakoaren aurrean, klausula honek zehaztasun handiagoa ematen du datu horiei eman beharreko babesaren inguruan, zergadunen ohorerako, intimitate pertsonal eta familiarrerako eta datu pertsonalen babeserako oinarritzko eskubideak babesteko, eta haien anonimotasuna bermatuko duten prozedurak ezartzen ditu, Espainiako Konstituzioaren 18. artikulua 1. eta 4. apartatuetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan aurreikusitako baldintzetan; erregelamendu hori pertsona fisikoen babesari buruzkoa da, datu pertsonalen	La cláusula segunda se refiere al carácter reservado de los datos tributarios y secreto estadístico, esta cláusula incorpora frente a lo previsto en 2020 una mayor concreción de la protección a otorgar a estos datos para preservar derechos fundamentales al honor y a la intimidad personal y familiar de los contribuyentes y a la protección de datos personales, estableciendo los procedimientos que garanticen el anonimato de los mismos, de conformidad con lo previsto por los apartados 1 y 4 del artículo 18 de la Constitución Española, en los términos previstos en el Reglamento UE 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el

tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du, bai eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa ere. Era berean, sinatzaileek konpromisoa hartzen dute datuen segurtasuna eta konfidentziasuna bermatzeko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartzeko.

Hirugarren klausulak aurreikusten du Foru Ogasunak INEri eta EUSTATi emango diela Hitzarmenari atxikitako eranskinean zehazten diren estatistika-eragiketetarako behar den zerga-informazioa. Kasu honetan, estatistika-eragiketa horiek ez dira hitzarmenaren gorputzean zehazten, hitzarmenaren eranskinean baizik.

Laugarren klausulak INEk eta EUSTATEk Arabako Foru Ogasunak datuak lagatzeko eskabideetan jarraitu beharreko prozedura ezartzen du. Horri dagokionez, adierazi behar da 2020ko hitzarmenean aurreikusitakoarekin alderatuta, testu honetan araututako prozedura askoz zehatzagoa eta zehatzagoa dela, eta egin beharreko informazio-eskaerak zehatzago mugatzen dituela. Erregulazio horretatik ondorioztatzen da hobetu egin nahi dela informazioa transmititzeko jardunbidea, Foru Ogasunaren lan-karga minimizatzeko, eskatutako informazioa prestatu eta helarazteari dagokionez. Ildo horretan, gehienez bi urteko gabealdia ezartzen du urtebetetik beherako aldizkakotasunarekin datu fiskalak eskatzeko.

Bosgarren klausulak INEk eta EUSTATEk Arabako Foru Ogasunari eman beharreko informazio estatistikoa zehazten du.

Seigarren klausula hitzarmenaren finantzaketari buruzkoa da, eta adierazten du bertan aurreikusitako jarduketek ez dutela sortuko kontraprestazio ekonomikorik, eta ez diotela kosturik sortuko aldeei, eta bakoitzaren aurrekontu arruntaren kargura finantzatuko direla.

que se deroga la Directiva 95/46/CE, así como en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

Asimismo, incorpora el compromiso de las firmantes para adoptar medidas de índole técnica y organizativa para garantizar la seguridad y confidencialidad de los datos.

La cláusula tercera prevé que la Hacienda Foral suministrará al INE y a EUSTAT la información tributaria precisa para las operaciones estadísticas que se concretan en el Anexo que acompaña al Convenio. En este caso las citadas operaciones estadísticas no se concretan en el cuerpo del convenio sino que se contienen en el Anexo del mismo.

La cláusula cuarta establece el procedimiento que deben seguir el INE y EUSTAT para las solicitudes de cesión de datos por parte de la Hacienda Foral de Álava. Al respecto, señalar que, en comparación con lo previsto en el convenio de 2020 el procedimiento regulado en este texto es mucho más detallado y concreta y delimita de modo mas exhaustivo las peticiones de información a realizar. Se aprecia de dicha regulación que se pretende mejorar la operativa en la transmisión de la información para minimizar la carga de trabajo que recae sobre la Hacienda Foral en cuanto a la preparación y el traslado de la información solicitada. En dicha línea establece un periodo de carencia máximo de dos años para peticiones de datos fiscales con periodicidad inferior a un año.

La cláusula quinta concreta la información estadística a suministrar por el INE y por EUSTAT a la Hacienda Foral de Álava.

La cláusula sexta se refiere a la financiación del convenio, señalando que las actuaciones previstas en el mismo no darán lugar a contraprestaciones económicas ni generarán costes a ninguna de las partes, siendo financiadas con cargo al presupuesto ordinario de cada una ellas.



Zazpigarren klausulak Jarraipen Batzorde bat sortzea aurreikusten du, haren eginkizunak, osaera eta funtzionamendua adierazita. Batzordearen osaerari dagokionez, murriztu egin da batzordea osatzen duten kideen kopurua: bederatziziren 2020an, eta hiru hitzarmen berrian.	La cláusula séptima contempla la creación de una Comisión de Seguimiento, señalando sus funciones, composición y funcionamiento. En cuanto a su composición se reduce el número de miembros integrantes de la Comisión, pasando de nueve en 2020 a tres en el nuevo Convenio.
Soilik iradokitzen dugu klausula horretan jasota gera dadila, organo horretan alderdi bakoitza ordezkatzeko duten kideak zehazten direnean, lehenik, Arabako Foru Ogasuna, ondoren, INErena, eta, azkenik, EUSTATena, hitzarmenaren tituluan ezartzen den ordenarekin bat etor dadin akordioa sinatzen duten administrazio publikoak edo erakunde publikoak zehaztean, eta, ondoren, akordioa sinatzeko duten pertsonak zehazten direnean, ordena berari jarraituz (Arabako Foru Ogasuna, INE eta EUSTAT).	Únicamente, sugerimos que en dicha cláusula, se hagan constar, cuando se determinan los integrantes que representan en dicho órgano a cada una de las partes, de la Hacienda Foral de Álava, en primer lugar, del INE a continuación, y del EUSTAT, por último, para que exista coherencia con el orden que se establece en el título del convenio al determinar las Administraciones Públicas u organismos públicos que suscriben el acuerdo, así como cuando, a continuación, se concretan las personas firmantes del mismo, en el que se sigue ese mismo orden (Hacienda Foral de Álava, INE y EUSTAT).
Klausula horretan Batzordeko lehendakaria nor izango den zehazten da, eta urtero txandaka egingo da. Aurreikuspen hori ez zegoen jasota aurreko hitzarmenean.	En dicha cláusula se determina a quien corresponderá la presidencia de la Comisión que se ejercerá de manera rotatoria con carácter anual. Dicha previsión no estaba contemplada en el convenio anterior.
Klausula horrek jorratutako gaien arabera teknikariak sartzeko aurreikusten duen aukerari dagokionez, zehaztu beharko litzateke langile horiek, Batzordeko kide ez diren heinean, hitzarekin baina botorik gabe esku har dezaketela.	En cuanto a la posibilidad que contempla dicha cláusula de incorporar personal técnico en función de los temas tratados, debería concretarse que dicho personal, en tanto en cuanto, no son integrantes de la Comisión podrían intervenir con voz pero sin voto.
Zortzigarren klausulak hitzarmenaren indarraldiari, iraupenari eta luzapenari buruzko aurreikuspenak jasotzen ditu. Horri dagokionez, gabealdia 2025eko urtarrilaren 1etik zenbatzen hasteari dagokionez (laugarren klausularen bosgarren apartatuaren bigarren paragrafoa), adierazi beharko litzateke hitzarmena sinatzen denetik zenbatzen hasi behar dela, eta ez dela 2025eko urtarrilera atzeratu behar. Iraupenari eta luzapenari dagokienez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015	La cláusula octava contempla las previsiones relativas a la entrada en vigor, duración y prórroga del convenio. Al respecto, en cuanto al inicio del computo del periodo de carencia (párrafo segundo del apartado cinco de la cláusula cuarta) desde 1 de enero de 2025 debería indicarse que se compute desde que se produzca la firma del convenio y no retrotraerlo a enero de 2025. En cuanto a su duración y prórroga, de conformidad con lo previsto en el artículo 49 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público se



Legearen 49. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, 4 urteko iraupena aurreikusten da, eta epe bereko luzapena, gehienez ere 8 urtekoa.	prevé una duración de 4 años y la prórroga por el mismo periodo, haciendo un máximo de 8 años.
Bestalde, klausula horretan nabarmentzekoa da, berritzailea delako, aurretiazko datuak eskatzeko aurreikuspena, hau da, hitzarmena indarrean ez zegoen denbora-tarteei buruzkoa. Hitzarmenaren testuak ondo dioen bezala: <i>praktika estatistikoak, kasu askotan, joerak aztertzea eskatzen du, non aurreko denbora-horizonteetatik datorren informazioa sartzen den.</i>	Por otro lado, en dicha cláusula también es destacable, por novedosa, la previsión de solicitar datos previos, esto es, de horizontes temporales en los que el convenio no tenía vigencia. Como bien dice el texto del convenio: <i>la práctica estadística exige, en muchos casos, el análisis de tendencias en las que se incluye información procedente de horizontes temporales anteriores.</i>
Bederatzigarren klausulak hitzarmenaren sinatzaileetako batzuek betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeak izan ditzakeen ondorioak adierazten ditu.	La cláusula novena indica los efectos que podrá conllevar el incumplimiento de las obligaciones y compromisos por parte de algunos de los firmantes del convenio.
Hamargarren klausulak hitzarmena azkentzeko eta suntsiarazteko araubidea ezartzen du, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.	La cláusula décima establece el régimen de extinción y resolución del convenio, de acuerdo con lo previsto en el artículo 51 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.
Hamaikagarren klausulak hitzarmena aldatzeko arauak jasotzen ditu.	La cláusula undécima contiene las reglas para la modificación del convenio.
Eta, azkenik, hamabigarren klausulak hitzarmenaren izaera zehazten du (administrazio-izaera), bai eta hitzarmenaren interpretazioari eta betearazpenari buruzko eztabaidarik egonez gero aplikatu beharreko jurisdikzioa ere (administrazioarekiko auzien jurisdikzioa).	Y, finalmente, la cláusula duodécima concreta la naturaleza del convenio (naturaleza administrativa) y la jurisdicción aplicable en caso de existir controversias sobre la interpretación y ejecución del convenio (jurisdicción contencioso-administrativa).
EUSTATEko Kudeaketa Juridiko eta Administratiboko Arloko Aholkularitza Juridikoak egindako txostenak hitzarmenaren edukiari buruzko azterketa zehatza eta oso zehatza egiten du, eta bat gatoz horrekin. Gure ustez, ez dago inolako gaitzespen juridiko-materialik klausulei buruz, aipatutako iradokizunak alde batera utzita.	El informe emitido por la Asesoría Jurídica del Área de Gestión Jurídico-Administrativa del EUSTAT realiza un análisis exhaustivo y muy preciso sobre el contenido del convenio, cuyas consideraciones compartimos, no existiendo, a nuestro juicio, reproche jurídico-material alguno que realizar con respecto al clausulado, a salvo de las sugerencias antedichas.
III.- ONDORIOA Azaldutakoarekin bat etorritz, aldeko	III.- CONCLUSIÓN De conformidad con lo expuesto, se

txostena ematen zaio Arabako Foru Ogasunaren, Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Euskal Estatistika Erakundearen artean informazioa trukatzeko egindako hitzarmenaren zirriborroari. Hauxe da ematen dudana txostena, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozeinen mende jartzen dut.	informa favorablemente el borrador de convenio entre la Hacienda Foral de Álava, el Instituto Nacional de Estadística y el Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística en materia de intercambios de información. Este es el informe que emito y que someto a cualquier otro mejor fundado en Derecho
---	---

Vitoria-Gasteizen, sinadura digitalaren datan.

LEGELARIA